

MERKATU SEGMENTAZIOA

Gure merkatua **nitxo**a izango da, bi bezero talde espezifikori zuzenduta: etorkinak eta langabeak.

- **ETORKINA:** Pertsona hauek ez daude legeztatutako egoeran eta askotan denbora luzez itxaroten dute beren egoitza lege onartzeko. Horrek lan egiteko aukera murrizten du, eta hizkuntza eta formazio falta oztopoak ere badituzte. Zailtasun horiek direla eta, askotan kalean dirua eskatzen edo ekintza ilegalean murgiltzen dira. Paperak lortzean, formakuntza faltak zailtzen die lan bat aurkitzea. Gehienetan, herrialde garatuertara emigratzen dute, arazo politiko, ekonomiko edo kulturalak direla eta, baina familiak mantentzeko behar horrek egoera are gehiago zailtzen du. Gizartean baztertuta bizi dira eta harrera txikia jasotzen dute, horrek egoera kaltetzen du.
- **LANGABEA:** Langabe hauek profesionalak dira eta hainbat arlotan (iturginak, elektrikariak, sukaldariak, igeltseroak, etab.) formazio espezifikoa jaso dute. Hala ere, lan merkatuan sartzea zaila egiten zaie. Langabeziaren arrazoiak askotarikoak izan daitezke, baina ohiko ezaugarriak hauek dira:
 - 45 urtetik aurrerakoak. (2022ko Infoempleo datuen arabera, 45 urtetik aurrerako hautagaiek curriculum kopuru bikoitza bidali behar dituzte lana aurkitzeko eta gainera, lan-eskaintzen %15 bakarrik dago zuzenduta segmentu honetara.)
 - Langabezia denbora luzez (< 1 urte) pairatzen dutenak.
 - Formakuntza profesionala edo unibertsitateko graduak eta oinarrizko hezkuntza jaso dituztenak.



Bi talde hauen artean, gure enpresak soluzioak eskaini nahi ditu, etorkinei integrazioaren bidez laguntzeko eta langabeei beren ezagutza eta esperientziak erabiliz berriz laneratzea ahalbidetzeko.